Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Moja Elordui

Basauri, Bizkaia (1929)

Aurkibidea

Biografia

Finagan jaio zen. Bere gurasoak ere, biak, Finagan jaio ziren. Karmen Mojaren iloba da. Emaztea, Eugenia Legina, Begoñakoa (Bilbo) zuen. Biak euskaldunak izan arren eta Finagako baserrian bizi arren, normalean erdaraz egiten zuten. Jende gutxirekin egiten zuen euskaraz. 18 urte bete arte ez zekien ganoraz erdaraz . Artzeko tailer batean eta Arrigorriagako papeleran egin zuen behar. Fonetikako triangulo bokaliko akustikoa aztertzeko eredu aproposa. Ikerlan honetako triangulua berari esker egin zen . Grabazio garaian, 62-63 urte inguru zituen.

Zintak

BSR-036

- **Proiektua**: Basauriko euskararen azterketa linguistikoa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Data**: 1990-07-18
- **Iraupena**: 46 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

- **Kodifikatzailea**: Gisasola, Jaione
- **Emalea**: Arretxe, Jon

BSR-037

- **Proiektua**: Basauriko euskararen azterketa linguistikoa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Data**: 1990-07-18
- **Iraupena**: 47 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Emalea**: Arretxe, Jon

BSR-048

- **Proiektua**: Basauriko euskararen azterketa linguistikoa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Data**: 1991-02-01
- **Iraupena**: 48 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Gisasola, Jaione
- **Emalea**: Arretxe, Jon

BSR-049

- **Proiektua**: Basauriko euskararen azterketa linguistikoa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Data**: 1991-02-01
- **Iraupena**: 49 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Gisasola, Jaione
- **Emalea**: Arretxe, Jon

BSR-135

- **Proiektua**: Basauriko euskararen azterketa linguistikoa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Data**: 1992-01-01
- **Iraupena**: 5 min
- **Euskarria**: DVD
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea**: Arretxe, Jon

Pasarteak

1. Gari batzen

- **Erref**: BSR-036/003
- **Iraupena**: 0:05:13. **Hasi**: 00:08:14. **Bukatu**: 00:13:27
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:
Garia nola ereiten zuten kontatzen du Josek. Bildu ondoren hazia nola garbitzen zen; eskuz egitetik makinan egitera pasa ziren, eskuz funtzionatzen zuen baina garbi-garbi geratzen omen zen. Zeberioko errotara joaten ziren. Artoa erretzeko egiten zuten labeko sua.

2. Artoa egiten

- **Erref**: BSR-036/004
- **Iraupena**: 0:03:42. **Hasi**: 00:13:27. **Bukatu**: 00:17:09
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:
Artoa egiteko lurra nola goldatu, artoa nola erein eta jorratzen zuten kontatzen du Josek. Garandu eta errotara eramaten zuten artoa, taloa egiten zuten ondoren.

3. Fruta-arbolak

- **Erref**: BSR-036/006
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:18:25. **Bukatu**: 00:20:53
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:
Josek fruta-arbola batzuk baditu baserrian baina gauza gutxi. Garai batean, gaztainak eta pikuak ere izan zituzten. Auzokoak fruta-arbolak izateko ohitura handia duela kontatzen du.

4. Txerri boda

- **Erref**: BSR-036/008
- **Iraupena**: 0:04:01. **Hasi**: 00:21:23. **Bukatu**: 00:25:24
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:
Txerri bi hiltzen zituzten urtero. Gabon aurretik eta ondoren hiltzen zituzten. Txerri boda egiten zutenean nolako giroa egoten zen kontatzen du Josek. Emakumeek egiten zituzten lan desberdinak azaltzen ditu.

5. Papeleran lanean

- **Erref**: BSR-036/010
- **Iraupena**: 0:03:54. **Hasi**: 00:29:21. **Bukatu**: 00:33:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Papergintza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Aitak fabriketan ez sartzeko eta ikasteko aholkatu zien. Josek zurgintza ikasi zuen. Marrazketa eta planoak egiten ikasten egon ondoren, arotz lanetan hasi zen. Baina horrek etorkizunik ez zuela eta, Arrigorriagako paper-fabrikara sartu zen.

6. San Migelen eskolan

- **Erref**: BSR-036/011
- **Iraupena**: 0:03:57. **Hasi**: 00:33:15. **Bukatu**: 00:37:12
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
San Migelen joan izan zen eskolara Jose. Euskaraz hitz egiten zuenean maistrak jo egiten zuela kontatzen du. Eskolatik kanpo ere irakaslearekin joaten ziren gehiago ikastera eta orduan umore hobea izaten zuela kontatzen du. Gazteleraz ongi ikasi ez duela dio Josek.

7. Gerra garaian baserrian

- **Erref**: BSR-036/013
- **Iraupena**: 0:04:07. **Hasi**: 00:38:25. **Bukatu**: 00:42:32
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:
Gerra garaian 10 urte zituen Josek. Goserik pasa ez zuela gogoratzen du, auzoko eta etxekoak ez ziren kanpora joan. Etxean esnea izaten zuten eta baratzean beti zerbait biltzen zuten.

8. Lanean gazteleraz asko

- **Erref**: BSR-036/015
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:44:46. **Bukatu**: 00:45:31
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Gazteleraz hitz egiten zuen Arizen. Paper-fabrikan batzuekin euskaraz egin arren, gazteleraz egiten zuen gehienbat.

Transkripzioa
- Ordun zuk... Arizen eta... han erderaz iten zendun ezta? Jentiaz, han

euskerarik ez...
- Bai, bai, bai. Ez, ez, han erderaz, erderaz.
- Gero papelerara joan...
- Han papeleran bertan, han Zaratamoko batzukez euskeraz, ta bestikaz erderaz.
- Gero kanpoan ez zara ibili zu, ezta? Beste fabriketan...
- Ez, ez. Ni ibili naiz arotzen onduen etxetatik asko, urte askotan. Urte asko, asko. Osteien, beste fabrikarik ez da.

9. "Mamu" eta "sorgin" hitzen erabilera

- **Erref**: BSR-048/002
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:09:00. **Bukatu**: 00:10:12
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:
Josek ez du "mamu" hitza "fantasma" adierarekin erabiltzen, "tuntun" adierarekin baino. "Fantasma" esateko, ordea, "sorgin" hitzarekin lotzen du.

Transkripzioa
- Ta fantasma esaten dozu zuk, mamue esaten dozu? Mamue, mamue.
- Ez, ez.
- Mamue entzunde dekozu?
- Bai. Baie mamua... mamua da gauze bat, dana bata... ez dekona zerik, bere kapazidadeik holan gure antzera izateko, ez deko. Mamua da geuze bat esaten dune "eres tonta". Mamua, mamo bat.
- Bai, bai.
- Ta hori... lehen esan doguna sorgiñe, sorgiñen antzera da zuk esan dozune fantasma...
- Bai.
- Horrelako lehenoko sorgiñek, hori besterik ez. Ez dakit nola esan. Lehen, edozeinek igual ifinten eben zer, etxeko hoiko mantal bat edo zeozer, ta joaten zana [...] batara ta holan ipinite zerur tin ton, edo kalabaza bategaz trabiñek, justu horreik, ya hori fantasmas. Mamuak ez dekot argi.

10. Ikerketarako zenbait galdera

- **Erref**: BSR-049/002
- **Iraupena**: 0:00:22. **Hasi**: 00:01:23. **Bukatu**: 00:01:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa

Laburpena:
Basauriko euskara jasotzeko Joseri egindako galdera sorta bat jasotzen da pasarte honetan.

11. Ganaduaren inguruko azalpenak

- **Erref**: BSR-135/001
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Ganaduaren inguruko azalpenak. Egunean hiru bider ematen dio jaten ganaduari. Pentsua, arbia, eta belarra edo alpapa. Gero azpiak atera.

Transkripzioa
- Zer, Jose, zer zabiz iten ba?
- Ba hemen nabil naboa txikertan ba behientzaka... a ver emoten bajako jaten behieri.
- Egunero emoten etzezu?
- Egunero, bai, bai. Egunian hiru bider. Naboa dagonean hiru bider.
- Ta zer gehixau jaten daurie ba, naboaz aparte?
- Gero... janan... naboa, lehenengo... lehenengo zera, pentsue goizetan. Pentsue. Ta gero, berdin naboa, ta gero siko apur bet. Siko apur bet, bedarra, alfalfa apur bet edo holan. Gustetan jakie. Ta gero, etxekolanak in... azpixek atera, sahatsak, holantxe gabiz, hemen'e...
- Bai, bai.
- Ta zer gehixau ein behar da behixekaz ondo gobernetako? Atara pasioan edo ze in behar da?
- Bai, bai. Behixek ba landara, goizean jaten emon, ta gero ba landara atara, atera behar jakoz... landara. Ta gero ba gobernau. Gero gabeko zera be bai, eduki behar da.
- Bai?
- Ta gero kuidadu apur be bai eduki behar da ze behixak di /dira/ egunaro-egunaro begitu behar jakie, a ver zer daukien. Hori notara moduen da, notarak bere janaxa badauko [...] in behar da, ta ganadua bardin.
- Ta gana txarra badaukixek... zer esne gitxiago emoten daure ala?
- Bai. Bai, esne gitxiau, ta eurok bere tristerik dauz, hori notara moduen. Nobera be... honazkiño gogo txarragaz eramateko respontza txarra, ganadua bardin-bardin, be oso txarto.

12. Baserriko lana nahiago lantegikoa baino

- **Erref**: BSR-135/002
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:01:52. **Bukatu**: 00:03:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Baserrian bizi arren, lantegietan ere ibili izan da lanean. Gogorra izan arren, nahiago du baserriko beharra eta bizimodua.

13. Behien inguruko azalpenak

- **Erref**: BSR-135/003

- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:03:20. **Bukatu**: 00:05:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Baserriko lanak ez du etenik. Behiek lana eskatzen dute. Goizean eta gauean jetzi egin behar izaten dira. Behia ernari dagoenean, behin bakarrik.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-19

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com